

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Laskurain Barrutia

*Bergara,
Gipuzkoa
(1949)*

Aurkibidea



Biografia



Ama Bergararra zuen, aita Villabonan jaioa; etxean gipuzkera eta bizkaiera entzuten zituen. Kontxita Maiztegiren eskolan ibili zen. Herriko giro erdaldunak eraginda, euskara bazterrean uzten joan zen. Ama bihurtu zelarik, euskara berreskuratzea erabaki zuen. Hainbat ikastaro egin zituen Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Sailean, eta ondore bera hasi zen euskara irakasten, 1981ean, Eskola Elementalean. Berriketa Plaza izeneko saioan hartu du parte, beste hamaika herritarrekin batera, 2024ko Euskararen Egunean.

Zintak

BER-380

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-12-03
- **Iraupena:** 21 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Euskalkien konplexuak

- **Erref:** BER-380/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Etxean bizkaieraz eta gipuzkeraz hitz egin du beti. Ama bergararra zuen eta bere euskalkiarekin konplexua zuen, aitzak bere euskera ederragoa zela esaten zuelako. Gerora, konplexua galdu zuen.

2. Euskalki ezberdinetan ulertu ezinik

- **Erref:** BER-380/004

- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bost urte zituela, Villabonako aitonaren baserrira joan ziren oporretan. Behin, jausi egin zen eta zer gertatzen zitzaion kontatzeko estuasunak pasatu zituen, euskalki ezberdina hitz egiten zutelako.

3. Kontxita Maiztegi, ikastolako maistra

- **Erref:** BER-380/005
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Kontxita Maiztegiarekin ikasi zuen frontoiko eskolan. Hezkuntzen arteko trantsizioa oso ondo egin zuen eta batez ere baserritarrei laguntza asko eman zien gaztelaniaz irakasteko.

4. Seminarixuan euskarazko alfabetizazioa

- **Erref:** BER-380/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Nahiz eta euskaraz hitz egin, eskolan gaztelaniaz egiten zuten eta euskara-maila galdu zuen. Heldutan, euskaraz alfabetatu zen seminarioan. Juan Martin Elezpuru, Xabier Pardo, Gerardo Elorza... izan ziren bere irakasleak.

5. 1981etik euskarazko irakaslea

- **Erref:** BER-380/007
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:08:27. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Euskarako irakaslea izan da Bergarako Miguel Altuna ikastetxean. 1981ean hasi zen eta orduan, euskara irakasten zen arren, ez zegoen D eredurik bertan. Klaseak bi taldetan banatzen ziren, euskaraz zekitenak baina alfabetatuta ez zeudenentzat, eta euskaraz ez zekitenentzat.

6. Etorkinei arreta egiten

- **Erref:** BER-380/009
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:11:14. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Bergarara Espainiatik etorkinak heldu zirenean, arreta egiten zieten. Don Pedro Garitano abadeari laguntzen zion Mertxek.

7. Etorkinek normalean ez zuten euskaraz ikasten

- **Erref:** BER-380/010
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:15:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

60. hamarkadan Bergarara lanera joan ziren jende askok ez zuen euskaraz ikasi, ordurako herrian gaztelaniaz ere hitz egiten zelako. Ez zuten beharrik aurkitu.

8. Eskolan gaztelaniaz baina errezuak euskaraz

- **Erref:** BER-380/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Eskolan dena gaztelaniaz ikasi arren, erreztatzen euskaraz ikasten zuten. San Pedroko elizan, meza latinez eta euskaraz izaten zen. Bergarako kongregazio ezberdinak.

9. Bizkaieratik, euskara batuara saltoa

- **Erref:** BER-380/014
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskaraz alfabetatzen hasi zenean, bizkaieratik batuarako saltoa zaila egin zitzaion. Aditzekin zailtasunak izan zituen. Gero irakaslea izan denean, nahiz eta euskara batua irakatsi, herriko hizkera ere egiten zuten. Hika irakatsi izan du ere, baina ez du erabiltzen

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com